

ESLABA ALDEKO EUSKARAREN AZTERKETA TOPONIMIAREN BIDEZ

ONOMASTICON VASCONIAE, 11

Iruñean, 1994-10-21

Patxi Salaberri Zaratiegi

AURKEZPENA

Eguerdi on denoi:

Lehenik eta behin lan hau burutzen lagundu didaten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet: nire familiari, nire kezka eta bihozgabetzeak jasan dituelako eta lanera bultzatu nauelako, Uxueko eta gainerako herrietako informatzaileei beren laguntza gabe lana bururatzetik izango ez nukeelako, Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari, lana eskuzabalkiro finantziatu duelako, euskararen Akademia den Euskaltzaindiari, liburua argitaratzeak berekin dakartzan eginkizun ugariak bere gain hartu dituelako eta azkenez Nagraphic-eko Clemente Iriarteri, zeregin hauetan hasi berria zen ni bezalako batekin eraman izugarria erakutsi duelako.

Bigarren, liburuaren nondik norakoa laburki azaldu nahi dut: txikitandik adituak nituen etxean nire sorterrria den Uxueko hainbat eta hainbat leku-izen erdaldun batentzat bitxi: *Anzandieta, Turtunbera, Ardui, Txutxu, Redondiaga, Aliaga, Lakilazaba...* eta beti nuen buruan izen arraro horiek nondik heldu ote ziren jakiteko nahia. Euskara ikastearekin nahia irrika bilakatu zen, baina eskumenean nituen hiztegiak ez ziren, gutiz gehienetan, toki-izen horiek azaltzeko gauza. Doktorego tesia egitea suertatu zitzaidanean, hasieran beste zerbait aukeratu banuen ere, gero beti burutan erabili nuena-nire herriko toponimia eta euskara- azertu behar nuela begitandu zitzaidan, eta gaia aldatuik toponimiaren ikerketari ekin nion buru-belarri, jo-ta-ke. Sei urte beranduago, haurdunaldi luze latzaren ondoren, zuen aurrean duzuen ume potolo honetaz erdi nintzen.

Helburua nire eskualde horretako —Uxue eta inguruko herrietako—euskalduntasun galduean berri zerbait jakitea eta ikastea zen: noiz arte mintzatu zen euskara, hau nolako zen, hots, zer euskalkiren barrukotzat jo behar den, nolako ezaugarriak zituen...eta beste.



Onomastika batzordea. Iruñea, 1994-10-21

Beste alde, arian ariaz toponimiak berak dituen barne-muinak ere aztertu behar ni-tuela ohartu nintzen, ezer probetxuzkorik egitekotan: zer adiera zuten azaltzen ziren izenek, zer-nolako alde zegoen aurkientza-izen ber bati atxikitako posposizioen artean...e.a.

Helburu horiek oso neurri txikian baizik ez ditut bete ahal izan, baina saiatu behintzat saiatu naiz. Espero dut —eta honekin bukatuko dut— Uxue aldeko jendeak beren herriko toki-izenen eta hizkuntza historiaren berri zehatzagoa izanik, askotan hain beldurgarri zaizkien euskara eta euskal gauzak arrotzak ez, baizik beren-berenek dituztela ikusiko dutela.

* * *

Buenas tardes a todos:

En primer lugar quiero mostrar mi agradecimiento a todas las personas que me han ayudado: a mi familia, porque ha sufrido mis preocupaciones y me ha animado en todo momento, a los informantes de Ujué y del resto de los pueblos porque sin su ayuda no hubiera podido realizar este trabajo, a la Dirección General de Política Lingüística, por financiar la obra con generosidad, a la Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, por aceptar de buen grado todas las tareas que el publicar un libro así conlleva, y finalmente a Clemente Iriarte de Nagraphic, por tener tanta paciencia con un novato como yo en estas lides.

En segundo lugar me gustaría explicar un poco el porqué y el cómo del trabajo: desde crío había oído en casa muchos nombres de lugar extraños para un oído no vasco: *Anzandieta, Turtunbera, Ardui, Txutxu, Redondiaga, Aliaga, Lakilazaba...* y siempre tenía *in mente* ganas de saber qué eran, de dónde procedían. Al aprender euskara esas ganas se convirtieron en deseo ferviente, y al realizar la tesis doctoral decidí, tras algún cambio, que tenía que trabajar en aquello que siempre me había intrigado: la toponimia

ONOMASTICON VASCONIAE

II

PATXI SALABERRI ZARATIEGI

ESLABA
ALDEKO EUSKARAREN
AZTERKETA
TOPONIMIAREN
BIDEZ



EUSKALTZAINDIA